# 1325
# 1580

# Seiluak

Hiribildu bihurtu ginen eta Jaurerriko jaun edo anderearen menpe gelditu ginen, laster Gaztelako errege edo erreginen menpe. Gaztelarren administraziopean, agiriak hasi ziren etortzen Lequeitiora, eta eskubide eta abantailak ziurtatzen zizkigutenak ondo baino hobeto gorde ziren. Horiek dira dakarzkizueguenak, hobeto esanda, euren seiluak. Guk bidalitakoak, tamalez, ez ditugu ezagutzen.
Seiluak nahitaezkoak ziren idatzia bermatzeko, egiazkotasuna xedatzen ziotelako dokumentuari.  Seilu klase asko daude, baina gure artxiboan ugarienak berunezkoak, argizarizkoak eta plakazkoak izan ziren. Alabaina, argizarizkoak apurtu eta galdu egin ziren –gurean eta edonon, materialaren hauskortasunagatik- eta plakazkoek ez dute gehiegirik esaten.



Berunezkoekin geratuko gara, beraz. Hamabost bat seilu kontserbatzen dira: Alfonso XI.arenak, Pedro I.arenak, Enrique III. arenak, Juan I. eta II.enenak, Carlos I.arena (XXL tamainakoa) eta Felipe II.arena. Alfonso XI.arenek Lekeitiok beste urte dute. Ederrak benetan!




ALFONSO XI




PEDRO I




JUAN



CARLOS I

FELIPE II




Markuesen txistea